

Eskozia

Galdeketa ikusmiran

Iragana baino are interesgarriagoa du Eskoziak egun uztartzen ari den eztabaida nazionala. Euskal Herrian galdeketa antolatzeko dauden zailtasunak ezagututa, prozesu guztiz demokratiko baten adibidea aurkitu dugu han. Europako herrialde honetan gizartea bera da etorkizuna erabakitzen ari dena, eta okerrik gertatzen ez bada, bere ahotsa izango da azken hitza.

Testua eta argazkiak:


LANDER ARBELAITZ



ZILARREZKO EZPATA TXIKIA gona eskoziarra eusten, belaun-buruak agerian uzten dituzten galtzerdi beltzak, alkandora zuria eta jaka iluna soinean, erraz nabarmentzen da John, Inverness herriko gida turistiko dotorea. Bost kanpotar erakartzea lortu du oraingoan. Hamar libearen truk (12,6 euro) Ness lakuaren iparraldean dagoen herri lasaiaren historia *in situ* kontatu die, aurrez prestatutako txiste eta anekdotaz arindua. Ibilaldia ia bere osotasunean ingelesekin izandako gudek hartu dute. “Hona etorri eta gure etxeak erre zituzten, milaka hildako eragin,

beste horrenbeste Ameriketara eta Australiara bidali, gaelera, musika tresnak eta gure jantziak debekatu... Orain ulertzen al duzue zergatik gorrotatzen ditugun horrenbeste ingelesak? Bada garaia berriz independente izan gaitezen”, bota du ibilaldia amaitzean. Gero eta gutxiago falta da erreferendumerako eta nabari da giroa berotzen ari dela.

Iazko hauteskundeetan Alderdi Laboristak baino legebiltzarkide bat gehiago aterata, luzarotan pentsa ezina lortu zuen Alex Salmonden SNP Eskoziako Alderdi Nazionalak: agintea lortu eta



Historiaz
beteriko hiria
da Edinburgo.

gutxiengoan gobernua eratzea. Hauteskunde kanpainan hitz eman bezala, herrialde independente izan nahi duten ala ez erabakitzeko 2010. urteko erreferendumari tinko eusten diote Eskoziako Gobernutik –abertzaleek ez diote Eskoziako *Exekutiba* deitzen, Eskoziako *Gobernua* baizik–. Alderdi Laboristak, independentziaren aurka dagoen alderdi nagusiak, galdeketa begi onez ikusten duela gehiegi esatea den arren, onartu egiten du. Hala ere, oposiziotik galdeketa zenbait eta arinen burutzeko presioa egiten ari dira, Erresuma Batuarekiko zatiketa babesten duten herritarrak pixkana gora doazela baitiote inkesta gehienek.

Independentistak baikor

“Egizu lan nazio hobe baten lehen egunetan biziko bazina bezala”, irakur daiteke Eskoziako Parlamentuko paretetako batean Edinburgon. Omenaldi gisa Robert Louis Stevenson, Walter Scott, Robert Burns eta beste hainbat poeta eta idazle eskoziarren esaldiak horman geratu dira. Historiaz beteriko hiriarekin kontraste bizia egiten du eraikin modernoak. Autonomia 1999an berrezarri bazen ere, 2004an ireki zuten Parlamentua hartuko zuen eraikina.

Eskoziako arrantzaleen omenez olatu forma du sabaiak. Azpitik igaro eta azken solairuan zain dugu Stuart MacMillan, SNP alderdi abertzaleko legebiltzarkidea. Eraikina bera bezain berritzailea da bulegoa. Paretetako batean *independence* dioen itsaskin horia erraz nabarmentzen da. SNPko legebiltzarkide izan arren, Ingalaterran jaioa da; hala ere, alderdikide bakarretakoa izango da San Andresen gurutzedun bandera zuri-urdina bulegoan zintzilik duena.

Pozik daude alderdi abertzalean, herritarren-gana iristea lortzen ari direla eta eskoziar nortasuna indartzen ari dela uste dutelako. Laboristen krisiak ez omen du behea jo, oraindik orain Erresuma Batuko hauteskundeak galduko baitituzte MacMillanen ustez. Norvegia, Danimarka eta Irlanda bezalako herrialde “txikiak” ditu hizpide independentziaren onurak aldarrikatzeko, biztanle kopuruan eta tamainan antzekoak baitira. Laboristak erreferenduma aurreratzeko egiten ari diren presioaz dio hauteskundeetara aurkeztean SNPk argitaratu zuen *Manifestoan* argi jartzen duela galdeketa 2010ean egingo dela, beraz, hor ez dutela ezer eztabaidatzeko.

– Irabaziko al duzue erreferenduma?

Azken hitza ahoskatu orduko zabaldu zaio irribarrea ahoan. “Bai”. Segundo bateko pausa, eta tinko amaitu du esaldia. “Eskozia herrialde independente izango den eguna iristeko irrikitan nago; geure buruaren jabe izateko irrikitan; nazioarteko geure ordezkariatzarekin, Eskozia herrialde normal bilakatuko den eguna noiz helduko irrikitan”.

Baikor dira abertzaleak Caledonia zaharrean. Behin elkarrizketa amaituta, Euskal Herriarekin

lotura garbia eginda dio, bera ez zatekeela sekula SNP alderdian sartuko Eskoziako independentziaren izenean jendea hilko lukeen talderik balego, “independentzia atez ate jendea konbentzitzen lortzen da, eta ez inor hilez”. MacMillanen hitzetan, herritarren gehiengoak biolentziaren bidea arbuiatzen du. Datu zehatz gutxi aurki badaiteke ere, orain urte batzuk Scottish National Liberation Army (SNLA) izeneko taldeak eraso batzuk egin zituen. Alde batek, whisky botiletan pozoia sartuz; eta bestetik, Margaret Thatcher eta Diana Galesko printzesari lehergailu gutunak bidaliz. Ez zen inor hil. Zurrumurruek diotenez, ingelesen inteligentzia zerbitzuko kideak izan ziren talde hau antolatzen saiatu zirenak.

Laboristen presioak

Ingalaterra eta Eskoziaren arteko batasuna inoiz baino auskorrago dagoenean, hirugarren mendeurrena ospatu zuten iaz britainiar sentitzen direnek –Eskoziaren geroz eta gutxiago, datuen arabera–. Londrestik autonomia eman dieten hiru lurraldeetan (Ipar Irlandan, Galesen eta Eskoziaren) abertzaleak daude gobernuetan, bakarrak edo koalizioan.

SNPren garaipenak Eskoziako politikagintzan aldaketa handia eragin duela agerikoa da. Iazko maiatzeko hauteskunde garaian, Eskoziar Legebiltzarrari eskumen gehiagoren transferentziaren aurka agertu zen Alderdi Laborista; egun berriz, zein eskumen hartu behar lituzkeen negoziatzeko sortutako taldearen buru da. Hala ere, independentzia alde batera utzi dute aipatu batzordean, hasieratik.

Parlamentuko lehen solairuan daude Alderdi Laboristako legebiltzarkideak. David Whittonekin geratu gara egungo egoera aztertzeko. Segurtasun irudia ematen saiatzen badira ere, agerikoa da krisian daudela laboristak. Elkarrizketan azkeneko aitortu du urte zaila izaten ari dela bere alderdiarentzat. Hauteskundeak orain egingo balira, ia inkesta guztietan laboristak asko jaitsiko liriateke, eta abertzaleek hamar aulki gehiago lortuko lituzkete. “SNPk urtebete honetan oso neurri erraz eta popularrak hartu ditu herritarrak bere alde jartzeko, baina funtsean, hitz emandako neurri guztietan hitza jan du”. Laborista eskoziarren webgunean sartuta, alderdiari buruzko informazioa bera baino lehenago “SNP, urtebete hitza jaten” mezuak hartzen du pantaila bere osotasunean.

– Zergatik zaude independentziaren aurka?

– Politikoki bai Europan eta, zergatik ez esan, mundu zabalean egin den batasunik garrantzitsuen delako Ingalaterra eta Eskoziak orain 300 urte egin zutena. Herrialde hau oso txiroa zenean, batasunari esker egin genuen aurrera, eta orain, burua altxa dugunean, ez zait egokia iruditzen alde egin nahi izatea. Gainera, hobeto biziko gara elkarrekin.



Stuart MacMillan. SNP

“Herritarrei frogatu behar diegu herrialde normal batean hobeto biziko garela. Ezingo ditugula denak konbentzitu? Tira, beti egongo dira ezetz diotenak”.



David Whitton. Alderdi Laborista

“Ez dut uste Gordon Brown erreferenduma gelditzen saiatuko denik, eskoziar herriari bere etorkizunari buruz galdetzearen aurka ezin gara joan”.



Humza Yousaf. Asiar Eskoziar Gazteak Independentziaren Alde

“Ingalaterran eta beste zenbait herrialdeetan ez bezala, hemen etorkinok ez gaituzte eskoziar ala asiar garen aukeratzera behartzen”.



Eskozia independente izan daitekeela ez du dudan jartzen Whittonek, baina ez litzatekeela komenigarri uste du. Bigarren eskuko auto saltzailearekin alderatu du Alex Salmond Eskoziako lehen ministroa. “Autoak bezala, bere ideiak saltzen oso ona da, eta jendeak erosi egiten dizkio; gero konturatuko dira ordea autoek motorrik ez dutela”.

Halaber, hainbat dira galdeketaren gainean sortutako eztabaidak. Behin baino gehiagotan beren jarrera aldatu badute ere, laboristak galdeketa 2009ra aurreratzeko eskatzen ari dira. David Whittonen hitzetan beraiek herritarren nahia jakitearen alde daude, baina egungo egoera kaltegarria da ekonomiari begira. “Enpresek zein izango den etorkizuna jakin nahi dute, ez dute ez atzera ez aurrerako egoera honetan bizi nahi 2010a arte”. Galdeketak izango litzukeen aukera kopurua ere zehaztu gabe dago oraindik.

Whittonek azpimarratu nahi izan du SNP gobernuan bada ere, Legebiltzarrean independentziaren aldeko gehiengorik ez dela eta ez duela zilegitasunik erreferenduma konbokatzeke. Dena den, Euskal Herrian ez bezala, beren diskurtsoa horretara mugatu beharrean, herritarrek independentziarekin okerrago biziko liratekeela “ohartarazten” saiatzen ari dira laboristak.

Etorikinen babes

Orain urte batzuk, *tartan* izeneko ohial eskoziarrarekin erkatu zuen bertako gizartea Alex Salmond lehen ministroak. Integrazioa ardatz, kolore ezberdineko marrak elkar gurutzatuz, etorikinen komunitateari bere proiektua babesteko mezu garbia bota zien. Glasgowlko unibertsitateko ikerketa baten arabera, Eskoziako hiru etorkinetatik bik independentzia babesten dute.

Pakistango aita eta Kenyako ama ditu Humza Yousafek. Duela 23 urte jaio zen Glasgown, gurasoak bertara bizitzera joan ostean. Independentzia edozein herrirentzat ona dela

Goian, ilunabar dotorea Edinburgon.

esaten omen zion aitak gaztetan. Lasai eta garbi egiten du hitz, SNPko Bashir Ahmad legebiltzarkidearen idazkari lanean diharduen gazteak: “Ingalaterran eta beste zenbait herrialdetan baino askoz hobeto gaude integratuta etorkinok Eskozian, hemen inork ez digu eskoziar ala asiargaren aukeratzera behartzen. Hemen bi gauzak batera izan gaitzeko”. Horren adibide da, SNPren barne-adar gisa, 2005ean berak sortutako taldearen izena: Young Asian Scots for Independence (Asiar Eskoziar Gazteak Independentziaren alde).

“Errespetua da gakoa, eta behin herri batean errespetuz hartzen gaituztenean, duda barik, guk ere bertakoei gure laguntza eskainiko diegu beren proiektua aurrera ateratzeko”. Bere hitzetan, independentziaren borroka zilegitasun osoa du Eskozian, sinesmen ezberdinetako jende ezberdina biltzen baitu bere baitan. Laboristek Irak eta Afghanistango gudak babestu izanak ere lagundu ei du etorkinak SNPren altxora eramateko.

– Independentzia beraz, noizko?

– Gure aitak, orain hamar urtetik esan izan dit: “Humza, independentzia bost urte barru lortuko dugu”, beti bost urte. Orain galdetzen badiozu ere bost urte erantzungo dizu; ni baikorragoa naiz, erreferenduma irabazi egingo dugu, eta gazte naizela ikusiko dut herrialde honen independentzia. Ondoren, bizitza osoa izango dut Eskozia independenteaz gozatzeko.

Elkarrizketa amaitu eta argazkiak ateratzera bidean, Bashir Ahmad bilera batetik iritsi da bulegora. Ahmad da Eskoziako historian hautatu duten asiargatorriko lehen legebiltzarkidea. 68 urterekin, baxu egiten du hitz, baina beti begietara begira.

– Zergatik babestu behar luke etorkinak Eskoziaren independentzia? –bota diogu galdera *boteprontoan*, aurkezpenen ostean.

– Errespetu handiz guregana hurbildu den

herria delako hau eta bidea batera egitera gonbidatu gaituztelako. Horrez gain, herri honen par-taide izaki, hobe bizi nahi dugulako.

Legebiltzarreko korridoreetan dabilzan zurrumurruek diotenez, Bashir Ahmad laster erretiratuko da eta Humza Yousaf gaztea izango da bere lekua hartuko duena.

Politikak baztertuta

Eskoziar nortasunaren berpizkundearen kapitu-lu berri gisa bataiatu dute zenbait egunkari britai-niarrek azken urte hau. Kaleko giroan ere nabari da zenbait lekutan. Beste batzuetan ez ordea. Badituzte politikaz haratago beste kezka batzuk.

Glasgowk ez du zerikusik Edinburgo, Stirling edo Inverness bezalako hiriguneekin. Arnasten den giroa oso ezberdina da eta pobrezia maila askoz altuagoa. Ehun urtean milioi bat pertsona bertara bizitzera joan izanak badu zerikusirik horretan. Industri iraultzatik aurrera, Eskoziako ekonomia Glasgowko untzigintza astuna, ikatza eta altzairua lantzen zuten meategiek bultzatu izan dute. Egun ostera, hiri grisaren irudia aldatu nahian dabilta, gauez koloreztatzen dituzten zubi metalikoen antzera. Hirigunea dotorea da, museo, bulego eta komertziorik gehienak har-tuz. Baina eskean dabilzan pertsonak ere gehi-ago dira nabarmen hemen.

Afrikako zenbait herrialdetan baino bizi itxaropen baxuagoa dute Glasgowko hainbat auzotan, eta txiroetan txiroenetakoa Cranhill izenekoa da. Bertan zaila da aurkitzea egunka-riek islatzen duten baikortasun girorik. Elizak orain zortzi urte sortu zuen Cranhill Commu-nity Project (CCP) elkarte, auzotarren beha-rreri erantzuteko. Egunero 200 bat pertsona pasatzen dira bertatik, ikastaroak, talde dinami-kak eta abar direla medio. Marie Ward ardura-dunak auzoan egindako zenbait ikerketaren datuak erakutsi dizkigu: Cranhillgo haurren erdia baino gehiago langabezia dauden gura-

soekin bizi da, eta ez omen da harritzekoa etxe berean soldatapeko lanik ez duten hiru belau-naldi batera bizitzen topatzea. Bizilagunen %40ak diru-laguntzak behar ditu bizitzeko; %70ak ez du autorik. Bihotzeko eritasunak dituztenen kopurua herrialdeko batez bestekoa baino %94 altuagoa da; drogekin lotutako heriotzak %158 altuagoak. Cranhillen, %60tik gora pobrezia mailatik behera bizi da. 60ko hamarkadan girotutako Ken Loachen *My Name is Joe* (Nire izena Joe da) filma dakar auzo honek gogora.

– Zein dira inguruotako jendearen arazo nagusiak?

– Horrenbeste dituzte... –hasi da Marie Ward arduraduna begirada zabaira zuzenduta. Osasuna eta hezkuntzari ematen diote garrantzia elkartean, baina bestela, langabezia, zorrak, familia hausturak, alkohola eta drogek pisu han-dia dutela dio. Garraioarekin ere arazo handiak ditu Cranhillgo jendeak. Erdigunera joateko zer-bitzua oso txarra da, eta auzoan dendarik ez eta auto-jabeak gutxi direnez, oinez egin behar izaten dituzte kilometro batzuk supermerkatu- ra heltzeko.

Elkarteko kafetegian Leeann Gear eta Leslie Grieverekin izan gara. Gear 24 urteko neska da, eta proiektua hasi zenetik sartu zen bertan, bere txirotasunean auzokideei lagundu nahiak bultza-tuta. Grieve helduagoa da, 50 urte ditu nortasun agirian, baina 60tik gora izan litzake bere larrua-zal zigortuari erreparatuko bagenio. Bizitzaren gogortasunak zaildutakoak biak, beren Glas-gowko azentu itxia ongi ahoskatzeko ere arazoak dituzte. Politikak ez du gehiegi kezkatzen Gear. Bozkatu ere, ez omen du egiten, eta independen-tziak bere bizitza ez duela gehiegi aldatuko dio. Aitortzen dutenez, auzo hauetan bizi den gehiengoak independentziaren inguruko ezta-baida oso urrun ikusten du. Grieve nolabaiteko salbuespena da eta sutsu aldarrikatzen du inde-

Inverness bezalako iparraldeko herrietan gaelera oraindik bizi da.





Glasgow bizitza gordinagoa da Eskoziako gainontzeko lekuekin alderatuta (goian).
Ondoko orrialdean, gaclera ama hizkuntza duen MacColla sendia Invernessen.

pendentzia bere herrialdearentzat. Arrantza sektorea du hizpide. “Londresko Gobernuari Eskoziak ez zaionez axola, Europan ez zituen iparraldeko gure arrantzaleak batere defendatu, eta begira orain, pikutara joan dira denak. Guk gure ahotsa izan behar genuke, geurea guk baino hobeto ez baitu inork defendatuko”.

Auzora itzulita, garraio publikoa eta denda falta dute hizpide. Ez ospitale, ez dentista, ez farmaziarik ez dute auzoan, eta edozer gerta ere, kanpora joan behar dute. Garraio publikoak zerbitzu hobea eskaintzea da bizilagunen eskaera nagusietakoa.

Erdigunera joateko autobusa hartu behar dugu. 20 minutu barru etorri behar luke batek, eta ez bada etortzen, 40 minuturen buruan etorriko dela hurrengo esan digu geltokian zain dagoen emakume batek. Askotan ez direla etortzen gehitu du gero. Halaxe gertatu da eta geltokian dauden 15 bat pertsonak, batere kexatu gabe, hurrengoaren zain jarri dira. Batzuk beste zigarro bat piztu dute.

Eskoziaren autoestima berritua kolokan uzteko modukoa da Cranhillen arratsaldea igarotzea. Eskoziako Gobernuak badu zer hobetua Cranhill bezalako zenbait lekutan bere proiektua babesteko duen oinarri sozial handia irabazi nahi badu.

Galeararen suspertze geldoa

Eskoziak iparraldera bidean, tren geltokietako seinaleekin batera hasten da taupaka ia hila dirudien gaclera eskoziarraren kardiograma. Inverness herrian (Inbhir Nis gacleraz), Lachlann MacColla bere semeekin jolasean ari da eguraldi

ona baliatuz. Hiru semeak, Sian (12), Ceallach (10) eta Rònán (6) gaclerazko haur-eskolara bidaltzen ditu. Bera ere gaclera hitzuna da, eta hau dute etxeko hizkuntza. Hala ere, ez da gauzarik ohikoena horrelako adibideak bilatu gabe aurkitzea.

Presentzia hutsala du hizkuntzak herrialdearen erditik hegoaldera. Egun, 60.000 hitzun inguru ditu gaclera eskoziarrak. Mendebaldeko kostara eta irletara joan ezean, zaila da kalean entzutea. Egoera horri aurre egin asmoz, Eskoziako Legebiltzarrak *Gaelic Language Scotland Act* delakoa onartu zuen 2005. urtean eta lehendik sortua zen Bòrd na Gàidhlig taldeari gaclera babesteko Gobernuak izendatutako talde ofizial izaera eman zioten diru-laguntzekin batera. SNP alderdiak, horrez gain, hizkuntza zeltiarra berreskuratzea bere helburuen artean jaso du. Lehen aldia da historia hurbilean gacleraren aldeko giro politikoa dagoela Eskozian.

Korrika eta presaka harrapatu dugu Kenneth Murray, Bòrd na Gàidhlig taldeko burua. Hebrida irletara joatekoa da. “Han bai, han jendeak gacleraz hitz egiten du eta horrela jarraituko dutela ziurtatu behar dugu”, dio elkarrizketa hasi aurretik. Lanpetuta dabilza Edinburgoko festibalerako kale izenak eta seinaleak itzultzen, hizkuntzaren irudi normalizatua bilatu asmoz.

Galeararentzat Plan Nazionalaren bidez, 2041. urterako 100.000 hitzunerak iristea jarri du helburu gobernuak eta urtero 21 milioi euro bideratuko ditu berau berreskuratzeko.

“Gu izan ginen hizkuntza galdu zuen belaualdia”, dio Janet Macleodek penatuta. Jaio



zenetik etxean gaieraz egin bazioten ere, eskolaren eraginez, gaiera mespretxatzera iritsi zela dio, eta orain, 50 urteren inguruan dabilenean konturatu da zelako altxorra den hain hizkuntza txikiko parte izatea. Egun, Eskozian propio gaieraz soilik irakasteko egin den lehen eskolako zuzendaria da bera, Invernessen. Pozik gogoratzen du nola etorri zen Alex Salmond lehen ministroa eskola berria irekitzera. Lehen ikasturtea dute eta 109 ikasle hartzen dituzte zazpi mailatan (bostetik hamaika urtera), baina hiru-lau urterekin 59 ikasle daudela azpimarratu du, datozen urteetan izango den gorakada nabarmenduz.

“Nahiz eta pentsatu nahi dudan edozein alderdi agintean izanda ere lagunduko gaituztela, eskoziar abertzaletasunak babes handia eman dio gaelikoari”, aitortzen du eskolako zuzendariak.

Semeak jolasean utzi eta Lachlann MacCollak dio Eskozia uztera behartu zituzten nekazariak, egungo AEBetako ingelesean gaieraren arrasto nabarmenak aurki daitezkeela. Independentzia babesten du sutuki, baita hizkuntzaren ikuspuntutik ere. “Irlanda adibide hartuta, gaierari ere independentziak mesede egingo lioke Ingalaterratik aparte bizitzeak, dudarik ez izan horretan”.

Etorkizuna erabakitze

Independentzia nahi ala ez, eskoziarren %85 inguru beren etorkizuna erabakitze eskubidearen alde dagoela ondorioztatu dute soziologo zenbaitek.

Erresuma Batuko lehen ministro Gordon Brown –eskoziarra bera ere– erreferenduma gelditzen saia litekeen galdetuta, buruari buelta

Scotsera

Ingalaterrarekin duen muga inguruan hitz egiten da gehienbat. Ingelesarekin dituen antzekotasunak ikusita, eztabaida dago ea hizkuntza ala ingelesaren Eskoziako aldaera den. Hain zuzen, bertako hiztun askok uste du scotseraz mintzo denean ingelesez ari dela, baina Eskoziako azentuarekin.

pare bat ematen geratu da Stuart MacMillan SNPko legebiltzarkidea. “Laboristak beren posizioa aurkitu ezinik ibili dira azken asteetan eta nork jakin zer defendatuko duten bi urteren buruan”. Beraiek independentziaren aldeko kanpaina egingo dutela ziurtatu du, eta laboristek egin dezatela batasunean jarraitzearen aldekoa, “baina ez daitezela hiritarrei beren etorkizuna erabakitze eskubidearen aurka joan, hori gaizki aterako baitzaie”, dio segur asko. Whitton laboristari galdera bera bota dio. “Ez dut uste Brown erreferenduma gelditzen saiatuko denik; herriari galdetzearen aurka ezin gara joan”. Laboristak posizio zailean dauden arren, beraiek ere ez dute begi onez ikusten herriari galdetzeko aukera kentzea.

Behinola lurralde misterioitsu eta urrun izandako Eskoziak, bi urteren buruan herrialde independente izan nahi al duen aukeratu beharko du. Britainia Handiko prentsak sinesgarritasun handia eman dio Alex Salmond proiektuari, eta jada karrikaratu dituzte umore ukitu batekin *Bizitzia Eskoziarrik Gabe* bezalako erreportajeak. Eskoziarrek independentzia aldarrikatzen dutenerako prest, *Erresuma Banandua* eta *Britainia ez-bain-Handia* bezalako terminoak ere asmatu dituzte.

“Aukeran emango banizu, zein aukeratuko zenuke?”, bota du galdera airera irribarrez Stuart MacMillanek: “Pozik ez dagoen gonbidatua, ala gustura bizi den bizilaguna?”. Umore eskoziarra. ■

<http://www.argia.com/eskozia> kanalean, Eskoziara egindako bidaiaren egunerokoa, bideoak eta diaporama.